

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Azkarate Urkiola

*Bergara,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Bidekruzetan bizi izan zen umetan, gero Masterrekan eta ondoren Txomin Irala kalean. Ama baserritarra zen, jostuna izandakoa zen gaztetan; aitak Alcorta y Compañía (gero Narbaiza) ehun-lantegian ziharduen lanean. Lau anai-arrebatan zaharrena zen. Enseñanzen ikasi zuen lau urtetatik 14 bitartera. Kontabilitatea eta mekanografia ere ikasi zituen. Orduan aita hil zitzaion, eta familia aurrera ateratzeko lan egin beharra egokitu zitzaion. Tela-denda jarri zuten amarekin. Gero, josten ikasi zuen; baita arropa mozten ere. 45 urtean jardun du jostun moduan lanean. Josten ere irakasten zuen. Ezkondu, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

BER-328

- **Proiektua:** Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2013-01-30
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

BER-329

- **Proiektua:** Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2013-01-30
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Umetan, goiko estazioan eta kondearen basoan

- **Erref:** BER-328/005
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Lanbideak

Laburpena:

<p>Bere aitak Alcorta y Compañía ehun lantegian egiten zuen lana, Mekolalden. Hiru sozioak zein ziren aipatzen du. Bi ahizpa dira. Amak umezaina hartu zuen goizetarako; arratsaldetan goiko estazio aldera joaten ziren lorategietan jolastera. Bitartean ama karta jokoan aritzen zen lagunekin.</p>

2. Kondearen basoa eta kondesa

- **Erref:** BER-328/006
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Umetako jolasak trenbide inguruan eta kondearen basoan. Bide ederrak zituen, Ama Birjinaren gruta eta bi urmael. Kondearen eta kondesaren kontuak. Pilarica egunean bakarrik ibiltzen ziren herrian. Kondesaren janzkera. "Kotxe landoa".</p>

3. Herriko jauntxoak; guardia zibilak

- **Erref:** BER-328/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Polizia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

"Kotxe landoan" Etxeaundiko alabak ikusi zituen behin, kondea eta kondesa ez. Kondea hil zenean, haren bi autoekin zer gertatu zen. Bat txoferrari utzi zion, eta taxi bihurtu zuen. Guardia zibilen tartekoa zen; gerra aurretik harreman ona zuten guardia zibilekin. Haien alabak euren lagunak ziren.

4. Santa Ana ermita; kondearen kontuak

- **Erref:** BER-328/008
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:15:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Kondearen lurretan zegoen ermitari buruzko kontuak. Santa Ana egunean irekitzen zuten. Tratua eginda zuten Udalarekin. Umetan pozik joaten ziren, eta ortensiak osten zituzten. Konde-kondesak bertan daude hilobiratuta. Kondea euskalduna zen. Negutegia zuen, landareekin, eta zientzialaria ere bazen. Kondesaren izaera.

5. Debara hondartzara eta errekan bainatzen

- **Erref:** BER-328/009
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:15:29. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Umetako bainuak. Debara joaten ziren urtean behin hondartzara, taxian. Bestela, errekan bainatzen ziren, putzu batean. Bainujantzirik ez zuen hasieran. Soineko zahar bat. Ez zuen igerian ikasi. Neskak bakarrik ibiltzen ziren; Agapitoren presan neska-mutilak. Ez du gogoan neskei joaten uzten ez zietenik; mutil baten kasua bai, arrebeekin bainika egiten edukitzen zutena.

6. 14 urterekin, kontabilitatea eta joskintza

- **Erref:** BER-328/010
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Umetan, neskak eta mutikoak, denak ibiltzen ziren nahiko libre. 14 urterekin aita hil zitzaion, eta jolasak kolpera amaitu ziren. 4 urtetik 14 bitartean mojetan ibili zen. Kontabilitatea eta mekanografia ikasi zituen, lehenengo mojetan eta gero Don Eliasekin. Neskak mutilak baino gehiago ziren han, kontabilitatea ikasten. Josten ikastera ere joan zen; Mugartzako Gregorirekin ibili zen lehenengo eta gero Katalina Zarauz zarautzarrarekin. Hark hiru ume zituen, eta senarrak asko laguntzen zion etxeko lanekin; salbuespena zen hura, ez zegoen ondo ikusia. Giro polita zuten taldean.

7. Ia konturatu gabe hasi, eta 45 urtean josten

- **Erref:** BER-328/011

- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:21:41. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Inportantea zen neskek josten ikastea. Hasi zenean ez zuen pentsatzen horretara dedikatuko zenik. Enkarguak egiten hasi zen. Bulego batean (Fundiciones Recalden) hasteko aukera izan zuen, baina lan hura ahizpak hartu zuen. 45 urte eman ditu josten.

8. Neskek ikasteko aukera gutxi

- **Erref:** BER-328/013
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:22:59. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Enseñanzen ibili zen. Ospitalean bere anaia ibili zen, Sor Eufemiarekin. 'Externa' zen bera, eta ez zuten ikasketak egiteko aukera handirik. 13 urte zituenean kontabilitatea ikasteko aukera jarri zuten. "Heziketa orokorra" zen. 14 urterekin utzi zuen eskola, eta Don Eliasekin jarraitu zuen kontabilitatea ikasten. Talde hartatik hiru-edo kolokatu zirela du gogoan. Neskek ez zuten karrera ikasten. Berak seme-alabei ikasketak eman nahi zizkielako egin zuen lana.

9. Ikasteko aukerak; Magisteritza, internen esku bakarrik

- **Erref:** BER-328/015
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Lau senide ziren, bi neska eta bi mutil. Mutilek elementalean ikasi zuten, eta Labe Garaietan ibili ziren lanean. Maila onera iritsi ziren. Bere lagunen artean ez dago neskarik ikasten jarraitu zuenik. Interna zeudenek bazuten Magisteritza ikasteko bidea. Batzuk aipatzen ditu.

10. Gerra aurretik batzokira, gimnasia egitera

- **Erref:** BER-328/017

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Batzokira joaten ziren gerra aurrean, patioan gimnasia egitera. Lasaneko aurreko etxea zen batzokia, handia. Ez da antzezlanekin akordatzeko, ezta pospolinekin ere.</p>

11. Maria 'Txantxote' andereñoa

- **Erref:** BER-328/018
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:28:02. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Maria 'Txantxote' andereñoaren ikastola. Eta Kontxita Maiztegiren eskola. 'Txantxote' Frantziara joan zen gerra garaian, eta handik Belgikara. Mozosen botika izandako lokalean ematen zituen eskolak. Uste du bueltan ere eman zituela eskolak. Alkortanekoei punta tailerra jartzen lagundu zien gero; bere anaia han hasi zen lanean. Aparteko emakumea zela dio. Gero beraien tailerra ipini zuten Ostetan, eta Mariak eramaten zituen kontuak (bere bi ahizpak ere han lanean).

12. Aita eta osaba preso, gerra sasoian

- **Erref:** BER-328/020
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:34:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Ez da akordatzeko batzokian ibiltzen zirenekin. Bere gurasoak bai, ibiltzen ziren. Osaba alkatea zen, eta aitarekin batera Donostian Ondarretan egon zen preso. Zabalaneko Don Luis eta anaia ere beraiekin zeuden. Prakatutz okindegikoa ere bai. Ez ziren inora joan.</p>

13. Lanean nola hasi zen, egun batetik bestera; tela denda

- **Erref:** BER-328/021
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:34:51. **Bukatu:** 00:37:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

14 urte zituen aita hil zitzaionean. Aurretik lan gutxi egin zuen berak etxean. Gero bai. Dena aldatu zen. Amari ez zitzaion pentsiorik geratu. Bera zaharrena zen, eta lanean hasi behar izan zuen. Denda jarri zuen amak, eta berak laguntzen zion. Gero josten hasi zen, eta ahizpa ofizinan. Anaiek ez zuten etxeko lanik egiten, eta berari ez zitzaion ondo iruditzen. Tela erosi eta saldu egiten zuten. Amak josi ere egiten zuen. Singer josteko makina.

14. Tela gutxi, gerra ostean; tela motak

- **Erref:** BER-328/022
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:37:54. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Tela denda Barrenkalen jarri zuten. Oso txikia zen. Ez zuen izenik. Tela erosi eta saldu egiten zuten. Gerra ostean zaila zen tela lortzea. Durango aldetik joaten zitzaizkien eroatera, gero baserrietan saltzeko. Tela motak aipatzen ditu.

15. Algodonera eta emakumeak

- **Erref:** BER-328/023
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:42:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Algodoneran prozesua hasieratik bukaeraraino egiten zuten. Algodoi fardoak nola eramaten zituzten geltokitik. Uraren garrantzia tindatzeko orduan. Bergarako azula. Emakume asko zebilen han, baina ezkontzean gehienek utzi egiten zuten. Alargunak ere bazeuden.

16. Bergaran emakumeak lan aukera handiagoa

- **Erref:** BER-328/025
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:42:49. **Bukatu:** 00:44:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Beste herri batzuetan ez zegoen halako lan aukerarik emakumeentzat. 14 urterekin hasten ziren lanean. Amari ematen zioten dirua. Bere lagunak ez ziren ehun lantegian ibili, baina ohikoa zen. Konfekzio tailerrak ere bazeuden. Otazua lantegian gehienak emakumeak ziren; gizonak mekanikoak.

17. Tindatzea, gizonen lana

- **Erref:** BER-328/026
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:44:42. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihaigintza
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Tindatze lanak gizakumeek egiten zituzten. Bonbulun ere bazen lantegi bat horretarako. Ez du Bergaran umeei titia emateko lekurik ezagutu fabriketan; Andoaingo lantegi batean bai, haurtzaindegia zuten. Emakumeek ezkontzean lana uzten zuten.

18. Jostunak eta pelukerak etxean lanean

- **Erref:** BER-328/027
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:46:07. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Etxean josi izan du beti. Bere denborako jostunek eta pelukerek etxean egiten zuten lana. Ez zuten lokal bat ipintzeko beste irabazten. Enkarguak ezkontzetarako edo jaietarako jantzik izaten ziren. Data jarri, eta askotan lanak ezin bukatu ibiltzen ziren, goizaldera arte lanean. Ordu askoko lana zen. Ezkondu ostean hartu zion neurria gehixeago. Dena eskuz egiten zuten, eta astuna zen.

19. Ezkontzetan, emaztegaia beltzez

- **Erref:** BER-328/028
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:47:58. **Bukatu:** 00:50:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Ezkontzetarako egiten zituen jantzi asko. Orduan emaztegaiak beltzez janzten ziren. Zuriz joateko, nobioa eta gonbidatuak frakez joan behar ziren. Horregatik, neska aberatsak ere beltzez joaten ziren. Florita Sañudok hautsi zuen hori, Lasagabaster ehun lantegiko alabak. Zuriz joan zen. Ingeniari batekin ezkondu zen, alfonbra gorria jarrita.

20. Lutoa eta tindategiak

- **Erref:** BER-328/030
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:50:56. **Bukatu:** 00:53:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Emaztegaiak beltzez joaten ziren, dotore. Lutoa ere asko erabiltzen zen. Aita hil zitzaionean, arropa batzuk beltzez tindatu zituen. Onena eta Renteri tindategiak zeuden. Onenan, aita eta semeak tailerrean (Mugerzan zeukaten tintoreria) tindatzen zituzten arropak, eta gero arropa fardoa buruan jarrita etxepera eramaten zuen. Plantxan egiteko gela bat zuten han; amak eta bi ahizpak egiten zuten plantxan, baita enkarguak hartu eta arropa partitu ere.

21. Jantziak ondo bukatzearen garrantzia

- **Erref:** BER-328/031
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:53:49. **Bukatu:** 00:56:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Barruko arroparik ez zuen josten. Soinekoak, berokiak, trajeak... Jantziak ondo bukatzea gustatzen zitzaion, eta bi proba egiten zituen. Konfekzioa etorri zen gero, eginda saltzen duten arropa. Muestrarioak eta telak, Bilbokoak, Bartzelonakoak, Pariskoak...

22. Josten irakasten zutenak

- **Erref:** BER-328/033
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:56:32. **Bukatu:** 00:58:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Bere aurretik zeuden jostunak. Enekoteginekoak, Angelita eta Angeles Inza ziren ezagunenak. Lehenengo biak ezkongabeak ziren eta hirugarrena

alarguna. Josten erakusten zuten; berak ere erakutsi zuen. Zazpi-zortzi ibili ziren josten ikasten, oso giro onean. Bere ikasleetatik bi dedikatu ziren jostera. Bere garaikoen artean, berriz, uste du bakarra izan zela.

23. Botoien garrantzia

- **Erref:** BER-328/034
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:58:27. **Bukatu:** 00:59:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Haria Bergarako dendetan erosten zuen, baina botoiak Bartzelonatik ekartzen zizkioten. Zubikua denda. Botoiak asko janzten duela dio. Beraiek tela denda nolatan utzi zuten.

24. Telak; baserriz baserri ibiltzen ziren jostunak

- **Erref:** BER-328/035
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:59:47. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Lehenengotan bezeroak eramaten zuen tela, eta berak josi; gero, muestrario bidez egiten zuen lana. Tela aukeratu, eta ekarri. Bilbotik, Bartzelonatik... Bergarako tela laneko arropa egiteko erabiltzen zen batez ere. Baserriz baserri ibiltzen ziren jostunak; bere ama ere horrela ibili zen ezkondu aurretik. Konponketak egiten zituzten, eta jatekoa ematen zieten.

25. Liñua, bere garairako gutxi

- **Erref:** BER-328/036
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:02:00. **Bukatu:** 01:03:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

Linozko piezak ezagutu ditu, baina ez ditu josteko erabili. Ordurako ez zen asko erabiltzen. Orain bueltatu egin da. Manteleria.

26. "Goruntza" umetatik

- **Erref:** BER-328/037
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:03:16. **Bukatu:** 01:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Korsea txikitatik erabiltzen zuten, "goruntza". Eta 14 urtetik aurrera faja. Goruntzak etxean egindakoak izango zirela uste du. Nolakoak ziren. Ez daki zertarako ipintzen zuten, zutik ibiltzeko edo.

27. Pelukeren eta jostunen lan baldintzak

- **Erref:** BER-328/039
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:04:33. **Bukatu:** 01:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Pelukerek igande goizetan ere lana egiten zuten. Margarita Azkarate, Bidegurutzean; Castañares ahizpak. Anguanekuak, Bidegurutzean. Etxean egiten zuten lana. Ez ziren autonomo moduan jartzen. Gehienak ez ziren ausartzen. Arrazoiak aipatzen ditu.

28. Ezkondu ostean etxean lanean jarraitzea

- **Erref:** BER-328/040
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:07:19. **Bukatu:** 01:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Lantegietan, ezkontzean emakumeek lana uzten zuten. Etxean lana egiten zutenek batzuetan ez. Baina hala ere gutxi zirela dio. Lantegietakoek kuota bat ordaintzen zuten, eta Adolfo Suarezren garaian pentsio bat izatea lortu zuten.

29. Bergarako sastreak

- **Erref:** BER-329/002
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:00:09. **Bukatu:** 00:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Sastreak. Ambrosio Mujika eta haren sozioa. Javier Mujika semeak jarraitu zuen sastreiarekin. Emakumeak ere egoten ziren han laguntzen. Zubietako sastre.

30. Familia eta lana uztartzea; konfekzio tailerrak

- **Erref:** BER-329/003
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Familia eta lana uztartzen zituen. Arratsaldetan emakume batek zaintzen zizkion umeak. Goizetan umeekin egoten zen. Ezkondu aurretik, ordu asko egiten zituen lanean. Neska batzuk joaten zitzaizkion josten ikastera, 19:00etatik 22:00etara. Horietako batek Amenabarren egiten zuen lana, zapatagintzan. Emakume askok konfekzio tailer txikientzat josi zuten etxean, urte batzuetan, nahiz eta ezkondata egon. Hijos de Felix Elorza zen horietako bat; tela moztuta ematen zieten, josteko. Langileen arropa zen.

31. Amenabarren zapata tailerra

- **Erref:** BER-329/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

<p>Zapatagintza. Amenabarrenekoak ibiltzen ziren horretan, aita eta semea. Gerra garaian haiek hil egin ziren; gerratik bueltan, tailerra berriz ireki eta etxeko alabek jarraitu zuten lanarekin. Justa eta Maria ahizpak ziren arduradunak, ezkongabeak. Maria 'Txantxote'ren lagunak ziren, seguruenez batzokian bilduko ziren; gerra garaian denak joan ziren ihesi. Laneko zapatak eta botak egiten zituzten, gizonentzat.</p>

32. Konfekzio tailerrak

- **Erref:** BER-329/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Konfekzio tailerrak. Loidik zeukan bat, Claudio Aiastui sastreak ere bai... Loidi Ameriketara ibilia zen. Loidiren tailerrean neskak egoten ziren josten; Masterrekatik Barrenkalera eraman zuten. Ez daki zenbat iraun zuen.

33. Bulegariak eta telefonistak

- **Erref:** BER-329/007
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:08:47. **Bukatu:** 00:09:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak bulegoetan lanean. Lehenengo-lehenengo hiru edo lau bakarrik joaten zirela du gogoan, baina gero gehiago. Labe Garaietan asko ibili ziren. Telefonistak ere emakumeak ziren: Pepita Biain zen bat.

34. Rufina Larrañagaren estankoa eta gasolindegia

- **Erref:** BER-329/008
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Etxe azpian estankoa zuten. Rufina Larrañaga zen, Mari Berastegiren alarguna, arduraduna. Gasolinera ere bazegoen, zinema aurrean, eta Rufinak eramaten zuen; kendu egin zioten, gerra irabazi zutenen tartekoei emateko. Eraikin osoa zen Rufinarena.

35. Emakumeak denden arduran

- **Erref:** BER-329/010
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:16:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Mugerza gainean zegoen emakume bat, negozioaren arduran: Melitonenekoa. Mertzeria zeukan. Bera hara joaten zen hari bila. Bere senarrak ikatza saltzen zuen kalez kale, eta emaztea egoten zen dendan. Galtzaidunekoak: bere izeba egoten zen dendan, Jesusa. Rosita lehengusua tabakaleran egoten zen, kontuak eramaten; Ensenñanza ikasitakoa zen. Ameriketara ibilitakoa zen jabea. Hura hiltzean, Rositak hartu zuen kargu hori (tabakoak partitzeko 'subalterna', Madrildik emandakoa).

36. Plazentziako kanoi lantegia eta "Zerutxo" taberna

- **Erref:** BER-329/012
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:17:03. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Rosita Azkarateren amak, Jesusa Azkaratek, denda eduki zuen Masterrekan (senarra representantea zen). 'Galtzaidunekuak' esaten zieten. Izenaren jatorria: altzairu lanak egiten zituzten baserrian bere birraitonaren sasoian, Plazentzian. Kanoi lantegia egin zuteneko kontuak, nola geratu zen lanik gabe. Bergarara joan zen bizitzera. "Zerutxo" taberna jarri zuen "Infernukua"ren ondoan. Taberna eta gero janari denda. Hantxe egoten zen Jesusa. Ardoa ere saltzen zuten. Denda beti zegoen zabalik.

37. Emakumeak denden arduran III

- **Erref:** BER-329/015
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:25:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Orduko tabernak. Itsasminekua eta Etxaguenekoa: andre-gizonak egoten ziren. Ez du gogoan emakumea buru zuenik. Mujikaneko denda sasoi baten bi denda ziren: sastreria eta tela denda; denda Mujikaneko alargunak eramaten zuen. Konbenio kalean, inprenta zegoen lekuan, zegoen beste bat: Unzurrunzaga tela denda. Txaranekea ere emakumea zen, Lolita Ugalde, alarguna.

38. Emakumeak denden arduran IV

- **Erref:** BER-329/017
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Luisa Parios alarguna ere denda eduki zuen, drogeria San Pedro kalean. Raizabalenean ere Joanita eta ama; aita obradorean egongo zen, eta dendan emakumeak. Dendetan eta tabernetan emakume asko ibili zen lanean. Infernukuan ere andre-gizonak egoten ziren. Zurrutean, berriz, dena gizonak.

39. Labaderoak eta birramonaren kontuak

- **Erref:** BER-329/018
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:30:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Beraiek ez ziren labaderora joaten. Labadero batzuk non zeuden azaltzen du. Baina ez du gogoan erabiltzen zirenik. Bere birramonak Zuhurtin bai, garbitzen zituen arropak kanporako; birraitonak errekan garbitzen zituen, eta amonak plantxatu eta entregatu, astoarekin. Gerra garaian ezkondu ziren, elkar ezagutu gabe. Bera altua zen, eta senar txiki-txikia jarri zioten.

40. Plantxadorak; arropa konpontzea

- **Erref:** BER-329/019
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:30:13. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Plantxadorak. Kondearen etxean dontzeila moduan lana egindako neska batek, Etxaniz loraizanaren alabak, plantxatu egiten zuen: Cristina Etxaniz. Beste bat jostuna izan zen. Goenkalean, Gregori ere plantxadora zen, ezkongabea. 'Moja zaharrek' ere egiten zuten lan hori, jaunartzeko soinekoekin. Arropak konpondu egiten ziren. Ez zen hain erraz berria egiten.

41. Eskote handiak bekatu ziren

- **Erref:** BER-329/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:33:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Erljioaren eragina igartzen zen arropetan: eskote gutxi. Andre bat bazuen bezero moduan gainerakoak baino liberalagoa zena; gerra garaian hortik zehar ibilitakoa. "Muy liberada". Hark eskote handia eskatzen zion, esanaz lasai egoteko, ez zuela bekaturik egiten. Mireni erreparoa ematen zion. Moda aldatuz joan ahala bera ere liberatu zela dio.

42. Emakume aurreratuak eta atzeratuak

- **Erref:** BER-329/021
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:33:19. **Bukatu:** 00:36:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bera gaztea zeneko emakume aurreratuak aipatzen ditu. Gerran kanpoan ibilitako bi lehengusu eta San Antonioko bi ahizpa (errepublikarrak). Beraiek ziren atzeratuak, gehiengoa, baina ez ziren konturatzen.

43. Emakumeek zigarroak erretzea

- **Erref:** BER-329/022
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:36:17. **Bukatu:** 00:39:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeek ez zuten erretzen bera gaztea zenean. Gerora bai, ezkontzetan. Ijito hungariarrak Bergarara etortzen zirenean, gizonak limak pikatzen ibiltzen ziren eta emakumeetako batek erre egiten zuen. Aman osaba bat Kuban egon zen, eta han normala ei zen emakumeek zigarroak erretzea. Eibarko emakumeak diferenteak ziren, sozialistak. Beste pentsaera batekoak. Baina beraiek mojetako kumeak ziren. Eibarko emakumeak bakarrik geratzen ziren, gizonak ehizara joaten zirelako, eta kafetegira joateko geratzen ziren. Bergaran artean ez zuten halakorik egiten. Ezkondu ostean bai. Amerikanora bermuta hartzera.

44. Denbora librean, kalabazak ematen

- **Erref:** BER-329/023
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:39:11. **Bukatu:** 00:40:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Denbora librerik ez zuen ezkondu ostean. Lagunak sakabanatu egiten ziren. Senarraren kuadrillakoen emazteen lagun egiten ziren. Ezkondu aurretik, topatzen zuen dantzarako astia. Kalabazak ematen zituzten, dantzan bekaturik ez egiteko. Dena zen bekatu. Baina batzu-batzuekin egiten zuten dantza.</p>

45. Bergarako emakume dotoreak; eguzkia hartzea

- **Erref:** BER-329/024

- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:40:49. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Bergarako emakumeek dotore fama zuten. Pazkoetan inguruko herrietako neskak begira izaten zituzten, orduan arropa estreinatzen zuten eta. Batzuek eguzkia hartzen egoten ziren, Artekalekoak eta Goenkalekoak, beltzaran egoteko. Bere amaren sasoian, berriz, zuria zen estimatua; arroz hautsak ematen ei zituzten.

46. Lehengo moda nolakoa zen

- **Erref:** BER-329/026
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:43:47. **Bukatu:** 00:46:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Arropan izan diren moda aldaketak. Konfekzioak arropa nasaiagoa ekarri zuen, aurretik estuagoak ziren. Amaren garaian txaketarik ez zegoen, eta amantal eta guzti joaten ziren erromeriara. Igandetako amantala, zuria. Takoi altuko zapatak. 18 urtetik aurrera makilatu egiten ziren. Orain gehiago makilatzen dira, eta lehenago hasita. Belarritakoak jaio orduko jartzen zizkieten.</p>

47. Emaginak eta erizainak

- **Erref:** BER-329/027
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:46:56. **Bukatu:** 00:49:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Don Roman medikuarekin jaio zen bera. Ezagutu zituen emaginak: Ibañezen ama. Okina bizi den etxean bizi zen. Eta komadrone ofiziala, ikasketaduna, Mikaela Mujika zen. Uste du emagin lanak borondatez egingo zituztela sasoi batean; borondatea emango zietela. Praktikanteak: Mikaela eta Mertxe Orueta. Don Victorio medikuaren alaba ere baietz uste du: Carmen Mujika. Maiken egon zen erizain bezala, erretiroa hartu arte. Erizain ikasketak zituen.

48. Mojak, gaixoak zaintzen

- **Erref:** BER-329/028
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:49:43. **Bukatu:** 00:50:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Mojak ibiltzen ziren gaixoak zaintzen gaueetan, Mariaren Siervak. Kuota ordaintzen zen urtero. Afaria ematen zieten, eta 21:00etatik 07:00etara egoten ziren, etxekeak atseden hartzeko. Hogeitabat ziren. Lehenengo Arteakalean bizi ziren, eta gero abatetxera. Bergararrik ez zen haien artean.

49. Errege kabalgataren hasiera

- **Erref:** BER-329/030
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:51:08. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>'Acción Católica'koek antolatu zuten errege kabalgata lehen aldiz, Azpiazuk eta. Ez du gogoan zer gehiago egiten zuten. Bera etxean egoten baitzen beti, josi eta josi.</p>

50. Etxeko diru kontuen kudeaketa

- **Erref:** BER-329/033
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:54:52. **Bukatu:** 00:57:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxeko diruak emakumeak kudeatzen zituen gehiago. Kontua zuen gizonak baino gehiago ez irabazteko, hura ez zedin gutxiago sentitu. Bankuko kontuak berak zeramatzan normalean, senarrak lan orduetan ezin izaten zuelako joan. Berak ez du entzun emazteak gizonaren baimena behar zuenik bankutik dirua ateratzeko, baina bai lanerako.

51. Kontu korrante gabeko garaia

- **Erref:** BER-329/035
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 00:59:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bere aurreko emakumeek entzunda du gizonaren baimena behar zutela

lanerako; dirua erabiltzeko ez. Lehen kontu korronterik ez zen izaten, eskura kobratzen zuten, dirutan. Berak ez zuen zerbitzu soziala egin behar izan.

52. Amona ezkondu zenekoa

- **Erref:** BER-329/037
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:59:41. **Bukatu:** 01:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bere amandrearen kontuak. Zortzi ahizpa ziren. Zuhurtira ezkondu zenean, arreorik ez, dirua eramateko esan zioten, etxea ordaintzen ari zirelako. Etxea ez zen sekula bere izenean egon. Ordurako bera konturatuta ei zegoen hori gaizki zegoela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com